

COVID-19REN KONTROLEAN GUZTIOK HARTZEN DUGU PARTE

Autodiagnostiko-probek azkar eta erraz detektatzen dituzte pertsona kutsakorrenak (sintomak izan edo ez, baina birus gehiago dituztenak), transmisioa eteteko. **Herritarrek gaixotasunaren aurkako borrokan arduraz laguntzea ahalbidetzen dute: zenbat eta proba gehiago egin, orduan eta aukera gehiago birusa detektatzeko.**

- Emaiza positiboek gizarte-topaketak edo arrisku-jarduerak saihesteko eta kontrol-mekanismoa abian jartzeko balio behar dute.
- Emaiza negatiboa ordez, inoiz ez da segurtasun neurriak erlaxazeko aitzakia izango.

OROITU

✓ **BETI EMAITZA POSITIBOA-EN BERRI EMAN BEHAR DA.**

✓ **BOTIKARIA, BETI ZURE ESKU DAGO, OSASUNBIDE ARTEKO BITARTEKOA IZATEKO.**



Farmazia



FARMAZIAREN SEILUA



COVID-19 ANTIGENOEN AUTOTESTA

**+ ZURE
FARMAZIAN**

BOTIKARIAK AHOLKUAK EMATEN DIZKIZU:

- ✓ Proba behar bezala egin ahal izateko
- ✓ Emaiza behar bezala ulertu ahal izateko
- ✓ Emaizaren arabera jarraitu beharreko prozedura

EGIN ZURE AUTOTESTA FARMAZIAN



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Salud
Osasun Departamentua

**ZURE LANKIDETZA KONTUAN
HARTZEN DA. ZU,
BOTIKARIAREKIN KONTATU!**



COVID-19 ANTIGENOEN AUTOTESTA, FARMAZIAN

¿ZER DA?

SARS-Cov-2ko antigenoak detektatzeko proba azkarra da. Erabiltzaileak berak hartzen du lagina eta testaren emaitzak interpretatzen ditu, fabrikatzailearen jarraibideen arabera eta 15-20 minutu inguruko denboran.

NOIZ ERABILI?

Sintomekin edo sintomarik gabe erabil daiteke. Birus-karga handiagoa da infekzioa izan eta lehenengo 7 egunetan, edo sintomak agertu eta lehenengo 5 egunetan; beraz, negatibo faltsuak aurki daitezke proba sintomarik gabe eta/edo birus karga baxuarekin egiten bada. Proba maiztasun jakin batekin errepikatzen bada, handitu egiten da birusa infekzioaren lehen egunetan detektatzeko aukera.

NON ESKURATU?

Autodiagnostiko-testa farmazietan **bakarrik** ematen da, eta ez du errezetarik behar.


Ez erosi inoiz beste salmenta-kanal baten bidez.

Bilatu CE marka autotestaren etiketan eta ebaluatu duen jakinarazitako erakundearen 4 digituak.

ERRAZA AL DA EGITEA?

COVID-19 antigenoen autodiagnostikoko probak publiko orokorrak erabiltzeko prestatuta daude, baina osasun-profesional baten esperientziarekin alderatuta esperientziarik ez izateak eragina izan dezake haren errendimenduan.

Fidagarritasuna deuseza izan daiteke jarraibideak zehatz-mehatz betetzen ez badira.




Lagina hartzea funtsezkoa da:

- Kalitate txarreko lagin batek emaitza okerra ekar dezake.
- Lagina degradatu ez dadin, testa hartu eta berehala egin behar da: inoiz ez da hoztu edo izoztu behar, emaitzak baliogabetu daitezke.
- Soluzio kopuru desegokiak ere baliogabetu egiten du testa.

Positiboa

Negatiboa

Nulua



Emaitzen interpretazio zuzena erabakigarria da

Emaitza positibo batek beti esan nahi du test (T) lerro gehigarri bat agertzen zaiola kontrol-lerroari (C); test (T) lerro gehigarriak ez badago, testa negatiboa da; kontrol-lerroa (C) agertzen ez bada, testa ez da baliotzkoa.

Emaitza positiboa izan dadin, argi eta garbi ikusi behar dira t eta c lerro horizontalak, zalantzarik badago, testa errepikatu behar da edo botikari profesionalari aholkua eskatu.

FARMAZIALARIA ZURE ESANETARA DAGO PROBA EGITEKO AHOLKUAK EMATEKO EDO GIDATZEKO

ZER ESAN NAHI DU EMAITZA POSITIBO BATEK?

Emaitza positibo batek laginean SARS-CoV-2 birusa dagoela adierazten du: Aukera asko daude koronabirus bidezko infekzioa egoteko, sintomarik izan ez arren.

Emaitza positiboa bada, COVID-19 sintomak izan edo ez, autoisolatu egin behar da berehala; ondoren, dagokion osasun-zentroarekin harremanetan jarriko gara, diagnostikoa berresteko eskatzeko.

ZER ESAN NAHI DU EMAITZA NEGATIBOAK?

Horrek esan nahi du ez dela detektatzen laginean SARS-CoV-2 birusa. Hau da, probabilitate handiarekin, ez dago infekziorik martxan.

Emaitza negatiboa lor daiteke COVID-19 infekzioa duten pertsonengan, baldin eta birus-karga oso txikia bada, zazpi egun baino gehiago igaro badira infekzioa hasi zenetik, edo lagina hartzea egokia izan ez bada. Horregatik, emaitza negatiboak ez du gomendatutako kontrol-neurrietatik salbuesten.